

Gizarte
Migratzaileen
errealitatea
plazaratzeko, 'Mundu
bat Tolosaldean'

Musika
Enriko Rubiños
eta Dj Bull,
aurrez aurre,
diskoaz eta musikaz

2016-12-16
598. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

ataria

amasahara



gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkiz.

Gure baserritarrek eta arrantzaileek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoitzitako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenkoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamena.

Atzea emanda

Goizetako hotzagatik ez balitz, zerura begiratu eta inork gutxik asmatuko luke neguan sartzeko zorian gaudela. Egunak hotzetzik, baina eguzkitsu esnatzen zaizkigu aspaldian eta, argi ordu gehiegi ez bada ere, kalera irten eta paseoan ibiltzeko egun aproposak egin ditu.

Eguraldi ona egiten duenean, Donostia-ko hondartzaren inguruan gustura ibiltzen naiz tarteka; izan ere, inguruak eta baita hara eta hona dabilen jende pilak ere oportuan bezala sentiarazten dute bat. Agian, planak ez dirudi oso gustagarria, baina ohi-ko lekuetatik ateratzeko aukera paregabea eskaintzen du eta hori, noizean behin behintzat, eskertzekoa da.

Bertan topatu ditut azken denboran turista ugari hara eta hona; pauso mantsoan denak, inora iristeko presarik gabe, «klik» eta «klik». Antza, buruan gorde ezin duten hori kameraz batuko ote duten edo, argazkiak atera eta atera ikusi ditut ia denak. Bakarka, bikoteka, lagun taldean... «klik» eta «klik». Bateren bat egitea ere tokatu zait. Argazkietan po-

Bai, kamera eskuartearen hartzen duenak bat, bi eta hiru zenbatzearekin batera parean jarritakoak buelta ematen du, eta orduantxe «klik»



**MAIDER EIZMENDI
KAZETARIA**

satzeko egiten dituzten keinuak orotarikoak dira: serio baina irribarrea ezpain ertzetan marraztuta, serio gogoz kontra ariko balira bezala, kamerari mingaina aterata, pailazoarena egiten... Bainak bestelakoak ere ikusi ditut aspaldian, kamerari ipurdia edo atzea emanda ateratzen

diren argazki horiek. Bai, kamera eskuartearen hartzen duenak bat, bi eta hiru zenbatzearekin batera parean jarritakoak buelta ematen du, eta orduantxe «klik». Orduan eta aurpegi misteriotsuagoa jarri, orduan eta hobe; izan ere, guziak ahalegintzen dira ahalik eta urrutien dagoen punturen batera begira jartzen, ikusi ezin diren horietako batera. Leku ederrak ditu hiriburuak eta, agian, haiei eman nahi diete lehentasuna modu horretan; edo, agian, pertsona horiek argazkietan inoiz ere begiak zabalik ateratzen ez dakiten horietakoak dira eta modu honetan aurkitu dute taxuzko argazkiak egiteko bidea... Bainak, hala bada, zertarako jarri kameraren aurrean?

Sare sozialetan zintzilikatzeko edota norbere profilean jartzeko argazki ponposo horietakoak atera nahian dabilera jende hau uste dut. Eguzki izpiak, begirada galduak eta itzal jokoak dira horietan jaun eta jabe, ez dutelako finean errealtitatea harrapatzeko helbururik. Bainak zer dira, azken batean, sare sozialak? Ez al gaituzte bizi tzar une batez atzea eman eta buru eta gogoak inork ondo ulertzan ez dituen infinitu horretan jartzera behartzen?

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea. SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Arangiz **KUDEATZAILEA:** Jexux Murua **TELEFONO:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldi zikaran adierazitako esanen eta iritzien erantzukizun.



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amekzeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



berria

Txolarre



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Nora Urbizu

Plaza Etxeberri JATETXEA

Paseo Marqués de Olano Plaza
943 69 19 36
Zizurkil

GILDA EGUNA

17-12-2016
DONOSTIA

gu ere gildaren lagun!!!

www.plazaetxeberri.eus

Sarraigintza KEY•LAN

Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313

Itzali argiak, piztu energia

GAUR, ABENDUAK 16
ADUNA • ENERGIA TAILERRA (3. ADINEKOENTZAT)
11:00, KULTUR ARETOAN

ABENDUAK 17, LARUNBATA
TOLOSA • ENERGIA AZOKA
10:00-14:00, TRIANGULOAN

ABENDUAK 19, ASTELEHENNA
ANOETA • ENERGIA TAILERRA
(BEROKUNTZA ETA ARGINDARRA)
18:00, LIBURUTEGIAN

TOLOSA • ENERGIA TAILERRA
11:00, EGUNEKO ZENTROAN

piztu
tolosaldea

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hiriburu: Donostia-San Sebastián
GAIAN GIPUZKOA
TELEBERRIA GARATZEN

muebles IBARRA altzariak

Essenzia Dormire

Euskal Herria kalea 37 behea • IBARRA
mueblesibarra.decoracion@facebook.com • Tel: 943 53 63 24

LEHIARIK GABEKO PREZIOAK

Facebooken ere gaude!

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 09:30 – 13.00 / 16.30-20:00 Larunbatetan: 10:00 – 13:00

Hitzorduarekin larunbat arratsaldetan ere irekitzen dugu

Atsedenean adituak
Koltxoneria beheko solairuan



Urteko azken azoka bereziak hartuko du, bihar, Tolosa

Trianguloa, Zerkausia, Plaza Zaharra, San Frantzisko pasealekua eta Alondégia postuz josita izango dira

I. Urkizu

Larunbatak eta giroa eskutik joan lohi dira udazken tolosarrean eta, negua ate joka den honetan, urteko azoka bereziak jende betekada ekarriko du, bihar ere, herrira. Urteroko usain, kolore eta zaporeak eskuragarri izango dira, baina forma zertxobait aldatuko zaio, plaza berriren bat txertatu baitute ekitaldian.

Batetik, asteroko azokak ohiko gunek hartuko ditu, eta Zerkausian, Berdura plazan nahiz Euskal Herria plazan ekoizleek beren postuak jarriko dituzte. Aipatzeko da, gainera, 12:30ean nekazal-elikagaien posturik ederrenaren saria ere banatuko dute-la.

05

Trianguloa plazan, berriz, Euskal Herriko eta Errioxako 35 postuk hartuko dute azoka eremua eta, besteak beste, eztia, ahatekiak, gazta, txokolatea, txakolina nahiz ardoa eskuragarri izango dira. Produktu horiekin batera, urteroko moduan, Tolosako zenbait dendarik ere kalera aterako dituzte postuak, Eguberri opariei begira.

Orain arte, gaztetxoenen begiradak erakartzen zituen Plaza Zaharrak, animaliekin, baina aurten lore, landare eta zuhaitz postuek hartuko dute udal-letxe ataria. Zazpi saltzailek postua jarriko dute.

Horrela, behiak, artzain txakurrak, ahuntzak, oiloak, alpakkak eta astoak ikusteko aukera Alondégia plazan izango da, goiz osoan barrena. Askotariko jakiak ere eskainiko dituzte.

Azkenik, San Frantzisko pasealekuak ere borborka dagoen lapikoaren itxura hartuko du, bi arrazoirengatik. Batetik, euskal txeria bertan izango da ikusgai eta, era berean, artisauen postuen errenkada luzeak beteko ditu herritarren gutiziak. Azoka berezia 09:00etatik 14:00etara izango da.

Jatorriaren mugak apurtzeko hitzorduak

‘Mundu bat Tolosaldean’ egitaraua gaur hasiko da, migratzailleen errealityatea plazaratuko dute

Itzea Urkizu Arsuaga

Migrazioak ia beti izan dira gizateria-ren historiako protagonista, eta azken urteotan uholdea areagotu egin da, gerrak, ekonomia eta beste hainbat arrazoi tarteko. Tolosaldeko errealityate soziala ere gero eta anitzagoa da, eta beste behin *Mundu bat Tolosaldean* egitaraua prestatu du Tolosaldea Garatzeneko migracio eta aniztasun sailak, Migratzailen Nazioarteko Egunaren harira.

Bertan jaiotako herritarra kitzatzaileen errealityatera hurbiltzea da egitasmoaren helburu nagusienetako bat eta, aurten, gainera, bereziki saiatuko dira jatorri anitzeko emakumeen lana eta egunerokoia plazaratzen. Guztia, kultura eta jatorri desberdina duten herritarren arteko loturak eta elkarguneak indartzeko.

Aranburu jauregian aurkeztu dute gaur bertan abiaraziko dute egitaraua eta, Kristina Morales Tolosaldea Garatzeneko migrazio teknikariarekin batera izan dira, Olatz Peón Tolosako alkatea eta Pello Estanga Anoetako alkatea ere. Izan ere, jarduerak Tolosan, Anoetan, Elduainen eta Zizurkilren izango dira aurten.

Eurekin batera, egitarauko hitzorduak mamitu dituzten eragile eta elkartetako ordezkariek ere izan dira: Amina Chaairi margolaria, Stijn Callens Sos Arrazake-

riako kidea, Fatima Korma Guretzako taldeko kidea, Soraya Ronquillo Bidez bide elkarteko kidea, Estrella Ndogn eta Idoia Sanchez ipuin kontalariak, Arantxa Iruretagoiena Koku-jo elkarteko kidea eta Abdellah Krouit Litaarafu elkarteko kidea.

Gaur bertan ekingo diote egitasmoari, Anoetako auditorioan *Fatima* filma es-kainiko bautute, 15:00etan. Halaber, Aranburu jauregian *Errefuxiatuak, ongi etorri* erakusketa inauguratuko dute. Biher, berriz, Gabonetako azoka berezian, Marokoko gozoak eskainiko dituzte Guretzako emakume taldeko kideek, eta Koku-jo taldeko emakumeen poltsak eta motxitilak ere salgai izango dira. Egitaraua, ordea, urtarilaren 23ra bitarte lutzatuko da.

MUNDU BAT TOLOSALDEAN

Abenduaren 16tik urtarilaren 23ra.

Tolosako Aranburu jauregian, *Errefuxiatuak, ongi etorri* erakusketa. Amina Chaairen lehen erakusketa ere izango da bertan. **Abenduaren 16a.**

Fatima filma Anoetako auditorioan.

Abenduaren 17a. Gabonetako azoka berezian jatorri anitzeko herritarren produktuak. **Abenduaren 18a.** *En transito* dokumentala, 16:00etan, Tolosako Aranburu jauregian. **Abenduaren 20a.** Ekuatore Gineako ipuin eta jokoak.

17:30ean, Iriarte etxearen. **Abenduaren 27a.** Ekuatore Gineako ipuin eta jokoak, 17:00etan, kultur etxearen. Eraberean, Afrikar Batasuna elkartearren festa.

Gildari eskainitako asteburua, Ibarran

Gipuzkoa mailan ospatzen den Gilda Egunarekin egin du bat, aurren, Ibarrak; igandean gildak banatuko dituuste

Erredakzioa

Piperra gilda pintxoaren ezinbesteko osagaia izaki, Ibarrak Gipuzkoan mailan antolatzen den Gilda Egunean hartuko du parte lehen aldiz.

Gipuzkoako hainbat tabernatan gildak banatuko dituuste Gilda Egunaren harira, baina Ibarran zerbait berezia egin nahi izan dute, eta horretaz gain Gildaren Bikotea izeneko ekitaldia ere egingo dute larunbatean. Udaletxean 11:30etik aurrera, gilda pintxoari hobekien joaten zaion edaria aukeratuko dute. Horretarako hainbat sommelier, sukaldari eta kritikari gastronomikoaren iritziak bilduko dituuste. Igandean,

aldiz, gildak banatuko dituuste edarien truke Ibarrako hainbat tabernatan. Era berean, musikaz girotuko dituuste kaleak.

Gilda Egunaren helburuak pintxo honek gastronomian erdietsi duen protagonismoa nabarmendu eta lortuko hedapena balioan jartzea dira.

Ixiar Arratibel udaleko kultura zinetikoz produktuaren jatorria eta forma ekarri ditu gogora Gilda Egunaren berri ematerakoan: «Ibarrako piperra Ameriketatik ekarritakoa dugu. Tenperatura gozoa duen, oso euritsua den eta 450 metrotik behera dagoen ibarraldera egokitzten joan eta eraldatuda. Apirila eta maiatzat artean landatzen da. Sendoa denez ez du zainketa berezirik behar». Piperra eskuz jasotzen dela ere gogoratu du eta modu askotara prestatu hala bada ere gilda dela modurik «sonatuena» esan du.

06

Mobilizazioak Azkarateren atxiloketa salatzeko


Gaur iluntzean elkarretaratzea egingo dute Alegian eta igande arratsaldean manifestazioa, Tolosan

Erredakzioa

Gaur, 19:00etan elkarretaratza egingo dute Alegiako plazan Manu Azkarate iheslari tolosarraren atxiloketa salatzeko, udalak deituta.

Igandean ere izango da mobilizazioik. Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua manifestazioa antolatu du. 18:00etan abiatuko dira Tolosako Trianguloatik.

Polizia iturriek azaldu dutenez, Manu Azkarate asteazkenean atxilotu zuen Frantziako Poliziak Marsella inguruau.



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 IKASELKAR JOLAS ETA LIBURUAK

Neguko katalogotik euskarazko jolas eta liburuetaun 50 euroko bonoa

- Mari Carmen Tolosa (Amezketa)

ataria jarriko da saridunarekin harremanetan



943 22 58 76
www.ikaselkar.eus
ikaselkar@ikaselkar.eus



2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

- Joxi Balerdi (Irura)
- Juan Ignacio Elosegi (Berastegi)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko;

Urtarrilaren 23tik 31ra ITXITA eta gabonetan ordutegi bereziak.

Anoeta pasealekuak, 24 Donostia • Tel.: 943 46 44 04 • www.eltxuri.com



3 NEKATUR Nekazalturismo Elkartea

50 euroko NEKATXEKEA

Nekaturreko edozein ostatutan erabiltzeko

- Beatriz Esnaola (Anoeta)

ataria jarriko da saridunarekin harremanetan
www.nekaturn.net • 943 32 70 90 • agroturismo@nekatur.net



atarikide txartela aurkeztu behar da saria jaso edo erabiltzeko



Urkizuko udako solstizioko kontzertuaren irudia; emanaldi hartako muina Txoriei/diskoko abestiak izan ziren. DAVIT AMUNARRIZ

Askatasunaren ikurrari kantu

Et Incarnatus Orkestrak, Mixel Etxekoparrek eta François Rossék txorien doinuak hizpide dituen diskoa argitaratu dute

Rebeka Calvo

Musika eta ornitologia, bat egin da. Txorien kantu eta doinuak diskoko baterako inspirazio iturri. Horixe da Et Incarnatus Orkestrak, Xiberoako Mixel Etxekopar txirulari, kantari eta bertsolaria eta François Rossé konposatzaile eta pianista frantziarrak eskuartean duten proiektuaren muina, argitaratu berri duten *Txoriei an D'voiel* diskoko abestien lotura, hain justu. Etxekoparrek eta Rossék *Transhumantzia* (2010) eta *Aspaldian* (2013) dituzte elkarrekin, eta Xiru jaialdian *Txoriei* konposizioa eskaini zuten, Et Incarnatus Orkestrarekin batera. Emanaldi horrek soka ekarri du beraz, eta tiraka-tiraka, asteartearen 20:00etan Topic-en aurkeztuko duten diskoa ekarri du.

«Proiektu honi izenak eman dio izana», esan du Et Incarnatus Orkestrako Migel Zeberio zuzendaria. Ahozkotsuna eta idatzia lotzen dira lanean, Zeberiok esan duenez.

11 kanta bildu dituzte herrikoiak bantzuk eta diskorako konposatutakoak

beste batzuk, baina denek dituzte txoriak erdigunean. Bai instrumentuen bidez txorien kantuak iradokitzen dituztelako batzuetan, bai eta letrak ho-

TXORIEI AND VOEIL

Salneurria. 15 euro.

Saltokiak. Tolosako Solana kaleko

Aranburu denda edo

www.etincarnatus.comataria.



Migel Zeberio diskoa eskuartean duela. R. CALVO

rien inguruan aritzen direlako beste batzuetan. Rossé beraren, Angel Unzuren edo Juancho Zeberioren lanak dira, besteak beste, entzun daitezkeenak, baita Laboaren *Negua* kanta ere.

Diskoa bera ornitologian aitzindari izan diren Ramon eta Jesus Elosegiri eskainia dago. «Ramon eta Jesus mai- la goreneko ornitologoak ziren, tolosarrak biak, eta Aranzadiko kideak. As kotan ez gara konturatzten inguruan zer daukagun. Leitzako Miel Mari Elosegia *Luze* biologoaren osabak ziren biak. *Hegan* abestiak bere hitzak ditu, hain zuzen», esan du Zeberiok.

Messian gogoan

Ez da kasualitatea txoriei eskainitako lana egin izana. Izen ere, François Rossé Oliver Messian konposatzaile eza gunaren ikasle izandakoa da. Messianek 60ko hamarkadan bere lanei txorien kantuak txertatu zizkien, lane tariko asko txorien kantuak ingurukoak dira, txorien kantuak entzule fina zen Messian eta horrek Rosséren lanean ere izan du eragina. Etxekopar musikariak ere aspalditik txertatzentzu txorien kantuak bere abestietan.

Diskoa egiteko lagunez inguratua da Zeberio, «horiek gabe ezingo genuke lana ater», esan du. Diseinua Joseba Urretabizkaiak egin du, marrazkiak Elena Arrese, itzulpenak Emeterio Zaldibiak egin dizkio, zuzenketak Kike Amonarriz...

Aipatu behar da era berean, diskoko liburuxka euskaraz eta alsazieraz da goela, diskoko egileen ama hizkuntzatan, alegia.

Kirola erakutsi eta probatu

Zizurkilen kirol asteburua ospatzen ari dira egunotan eta astelehenetik aurrera Liburuaren Astea egingo dute

Jon Miranda

Aurtengo Kirol Astearen ezaugarri nagusia partaidetza izango dela nabarmendu du Joxe Mari Luengo, Zizurkilgo alkateak: «Kirol erakustaldiez gain, probatzeko aukera eman nahi diegu herritarrei».

Igandera bitarte adin guztiarako egokitutako eskaintza prestatu dute. Alkatearen esanetan, «kirolak ez du adinik, inoiz ez da berandu kirola egiteko» eta horretarako Denok Danena halterofilia taldeko Batis Kortajarenaren adibidea aipatu du: «Urteak dramatza Zizurkilgo ume eta gazteak halterofilia munduan trebatzen».

Bihar ospatuko den *Hamabi orduz kirolean* egitaskoaren barruan, Eguberrietako Torneoa prestatu du Denok Danena taldeak, urtero bezala. Kortajarenak azaldu duenez, «18:30etik aurrera ospatuko da Intxaure frontoian eta behin torneoa jokatutu gaztetxoek halterofilia probatzeko aukera izango dute. Proba errazak jarriko dizkiegu, lehenengo harremana egin dezaten kirol honekin. Ikusten dugu gaztetxoak falta direla eta etorkizuna bermaztzeko haietan egin behar dugu lan».

Aurretik lan hori egina dute Denok Danena taldean eta orain ari dira emaitza jasotzen. Biharko torneoan bi taldek hartuko dute parte eta bertan



Kortajarena, Larrea eta Luengo, kirol eta liburuaren asteen aurkezpenean. JON MIRANDA

ariko diren pultsulariek emaitza paregabeak lortu dituzte Espaniako ligan eta baita kopan ere. Susana Davilaren kasua nabarmendu du Kortajarenak: «Maiatzean Maltako txapelketan bigarren egin zuen eta azaroan Suitzan ospatutako torneoan txapeldun geratu zen. Abenduaren 7an berriz, Europa-ko txapelketan seigarren tokian sailkatu zen». Pultsulariak 18 urte ditu eta etorkizun oparoa duela uste du Denok Danenako ardurdadunak.

Hamabi Orduz Kirolean ekimena gau krosarekin borobilduko dute. «Aurtengo edizioa berezia izango da, hogeigarren aldia baita antolatzeko dela», esan du Ainhoa Larrea teknikariak. Bihar, 22:00etan haurren gau krosari emango zaio hasiera eta

22:30ean helduen krosari. Amaieran sariak banatuko dituzte.

Kirol Asteko egitaraua osatzeko, igandean, goizez futbola izango da El-barrenako zelaian eta Intxaure frontoian VI. Pilota txapelketako finalak jokatuko dira. (Kirol asteko egitaraua guztia agendan ikusgai).

Liburuaren Astea, astelehenetik

Aurten ere, abenduaren 28ra bitartean Zizurkilen Liburuaren Astea ospatuko dute. Besteak beste, hilaren 23an, Teodoro Hernandoren XV. Ipuin Lehia-ketako sari banaketa egingo da. Larreak nabarmendu duenez, «400 lan baino gehiago jaso ditugu eta parte hartzea izugarria izan da». Gaur zortzi jakinaraziko dituzte saridunak.

Gabon zoriontsuak igaro!

ORILOA
ARROPA DENDA

**ESKUALDATZEA
ERRETIROAGATIK**

**LIKIDAZIO
OSOA**

Eskolapioetako lorategiak, 3
TOLOSA
605 726 755

Bildarratz senatari autonomiko izendatu dute

LIBURUAREN ASTEA

ABENDUAK 19, ASTELEHENEA

18:00 – 20:00. Macarena Sanchez idazle zizurkildarra bere eleberri erromantikoa sinatzen ariko da.

ABENDUAK 20, ASTEARTEA

17:30. Estrella Ndong eta Idoia Sanchezen eskuistik, Ekuatore Gineako ipuinak eta jokoak egindo dira Iriarte kultur etxearen.

ABENDUAK 22, OSTEGUNA

19:30. Susana Cecilio akordeoiarekin eta Garazi Kamio narrataile dela, Kuban hasi eta Euskal Herrian bukatu den Konpasetan emakumeen istorioetan zehar bidaia intimoa proposatuko dute Atxulondo kultur etxearen.

ABENDUAK 23, OSTIRALA

17:30. Teodoro Hernandorenai XV. Ipuin Lehiaketak sari banaketa egindo da Atxulondo kultur etxearen, *Ipuinetik antzerkira tallerreko* umeen parte hartzearakin.

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

17:30. Plazida Otañon liburutegian *Ipuinen mundua familiarsaioa*. San Millan, Otañon eta Pello Errrotako umeek ipuinak bertsotan abestuko dituzte, eta bat-batean Amaia Agirre, Oihana Igúaran, Haritz Mujika eta Unai Mendizabal ariko dira.

Oharra. Horrez gain, Aitzondoko Plazida Otañon liburutegirako maskota egiteko oinarriak argitaratuko dira.

Legebiltzarrak bigarrengoz aukeratu du senatari eta berarekin batera Rodriguez eta Inarritu ariko dira

Erredakzioa

Atzo aukeratu zituzten Eusko Legebiltzarrean Espainiako senatu Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari izango diren hiru senatarietako.

Eusko Legebiltzarrean alderdi baikoitzak duen ordezkaritzaren arabera banatzen dituzte parlamentuan hiru senatari autonomikoak. Atzo lehen bozketa Jokin Bildarratz (EAJ) eta Jon Inarritu (EH Bildu) hautatu zituzten, 27 eta 19 botorekin, hurrenez hurren. Kolizio abertzaleko hautagaiak EAJren boto bat behar izan zuen, guxiengora iritsi ahal izateko.

Lehen bozketa horretan gutxieneko boto kopurura iritsi ezinik geratzen Luis Alejos (Elkarrekin Podemos) eta Tontxu Rodriguez (PSE-EE) hautagaiak. Bigarren bozketa bat behar izan zen hirugarren senataria aukeratzeko: Alejosek 11 boto eta Rodriguezek 37 eskuratu zituzten bigarren itzulian. Honenbestez, alderdi sozialistak senatari bat izango du Spainiako goi ganbaran, EAJrekin egindako akordioari esker.

Mus Txapelketa Herrikoia egingo dute bihar Villabonan

Kultur etxearen, 16:00etatik aurrera izango da txapelketa eta izen emateak ordu erdi lehenago egin beharko dira

Erredakzioa

Urtero antolatzen da Amasa-Villabonan mus txapelketa arrakastatsua. Sariak ere banatuko dira aurten. Lehen sailkatuek, 500 euro eta garai-kurrak jasoko dituzte. Bigarren sailkatuek 200 euro eta garaikurrak, hirugarrunek 100 euro eta bi txuleta eta laugarrenek arkumea eta bi ardo botila. Sailkatzen den herriko lehen bikoteko bi lagunentzat, afaria izango da Itzalpe tabernan.

32 bikote baino gutxiago izango balira sariak aldatuko liratekeela adierazi dute antolatzaileek.

Bihar, larunbatarekin, 16:00etan Villabonako kultur etxearen egindo da txapelketa. Izen emateak, bihar bertan, 15:30etik aurrera egin beharko dira, bikoteko 30 euro ordainduta.



hilberriak • urteurrenenak • eskertzak

ataria on jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Abenduan, Tolosa Gourmeteko jatetxe eta pintxo tabernetan mamia izango da protagonista



Tolosa Gourmeteko hainbat jatetxe eta pintxo tabernek bertako eta garaiko produktuak balioan jartzeko asmoz *Sukaldeko gure kuttunak* ekinmena jarri dute martxan. Hala, urteko hilabete bakotzari produktu bat lotu diote eta hori oinarri hartuta, bakotzak errezeta bat prestatu. Hilabete honetan esaterako, denek, mamia izango dute bezeroarentzako eskaintza gisa.

Gure ardi latxen esnearekin Idiazabal gazta egiteaz gain, beste otorduen amaierarako jaki bat ere badugu gure kuttunen artean: mamia. Abenduko protagonista izango da gure jatetxean. Eta goizerdirako aperitibo formatuan ere aurkezten digu baten batetek.



ABENDUAN

1. BETIALAI (Tolosa)

Mamia eztiarekin.

2. BOTARRI (Tolosa)

Mamiozkiek intxaur bizkotxatuarekin eta irasagar zuku moskatelatuarekin.

3. DENAK (Tolosa)

Ardi esnez etxean eginkiro mamia.

4. IKATZA (Tolosa)

Mamia eztia eta azukre beltzarekin.

5. IRIARTE (Berrobi)

Mamia eztia eta azukrearekin

6. LARRAITZ-GAIN (Abaltzisketa)

Mamia eztia eta azukrearekin.

7. ORBELA (Tolosa)

Ahate eta mahaspasa.

mamia saltza gazi-gozoarekin.

8. PATXINE (Asteasu)

Mamia.

9. PLAZA ETXEBERRI (Zizurkil)

Mamia eztiarekin.

10. ROUTE 33 (Alegia)

Mamia.



Uurretabizkaiak eta Santxezek ezustekoa eman zuten lehen jardunaldian Villabonan. OTXABI.COM

Pebet, partida ikusgarriak datozen

Villabonan, Zizurkilen eta Amezketa pilotajaialdi handiak jokatuko dira

Eredakzioa

Antton Pebeten Oroimenezko Txapelketaren lehen jardunaldiko partidak arrakastatsuak eta bikainak izan ziren, Villabonan. Ostiralean, pilotalekua ia bete egin zen. Gazte mailan, Riol portugaldarrak eta Aginako Arangurenak 22-14 irabazi zieten Goizuetako Salaberria eta Ruiz errioxarra. Arangurenak pilotakada biziagoak jo zituen eta gutxiago galdu zuen Ruizek baino. Salaberriak berriz, gauza politak erakutsi zituen arren, Riol baino gutxiago izan zen aurrean.

Nagusien mailan berriz, Ikaaztegi-tako Uurretabizkaiak eta Astigarragako Santxezek ezustekoa eman zuten Espinal Huartearri eta Gorrotxategi hernaniarrari 22-15 irabazita. Uurretabizkaiak pilotak astindu zuen eta Santxezek partida borobila egin. Aukariek ezin izan zuten askoz gehiagorik egin.

Larunbatean izugarrizko bi partida ikusi ahal izan ziren Villabonako Bearzana pilotalekuaren. Gazteen mailan Anso nafarrak eta Asteasuko Aizpuruk

22-19 irabazi zieten Iruñeko Etxeberria eta Apezetxea goizuetarrari. Etxeberria izan zen lauretan onena nahiz eta galdu. Bere bizkar hartu zuen bikotearren zama eta partida handia egin zuen bai defentsan baita erasoan ere. Irabazleek majo sufrituta irabazi zuten. Apezetxeak, besteek baino hiru urte gutxiago izan arren, maila ederra eman zuen. Hala ere agian, handi geratu zitzzion larunbateko partida.

Nagusien mailan berriz Prado Naje-rako aurrelari ezkerrak eta Etxegoin lapurtarrak 22-19 irabazi zuten Erorrioko Azpiri eta Murgiondo azpeitiarraren aurka. Izugarrizko partida izan zen. Batzuek jo besteek sufritu. Etxe-goinek izugarrizko pilotakadak jo zituen, abiada bizi ateratzen dira pilotak bere eskutik eta Pradok tantoa ederki bukatu eta pilota ongi mugitu zuen.

Final-laurdenetako bigarren jardunaldia gaur jokatuko da, 19:00etan. Gazteen mailan partida bikaina espero da. Batetik, Zubizarreta ataundarrak eta Mariezkurrena irufiearrak Astigarragako Exposito eta Zezeagak aurka jokatuko dute. Zezeaga, profesional ohiaren semea dugu. Bi aurrelariak ikusteko gogoa dago. Bikainak biak. Atzean ere lehia polita espero da.

Nagusie mailan, Larrañaga gasteiztarra eta Lizeaga (Kastilloren ordez dator, Bizkaiko finala du Kastillok) hernaniarrak lan handia egin beharko dute urte oso ona daraman Santxo usurbildarra eta egun den gipuzkoar atzelari onenakoa den Garmendia-ren aurka irabazteko. Hau ere partida handia izango da.

Larunbatean berriz, hau ere 19:00etan, Elola bidaniarrak eta Gaskue nafarrak Alberdi azpeitiarra eta Eskiroz nafarra izango dituzte aukari. Partida handia espero da hemen ere. Elolak izugarri hobetu du, Gaskuek lana ematen du joaten den toki orotan eta Alberdi pilotari oso konpletoa da eta Eskiroz maila bikainean dago. Dia-rio Vasco torneo famatuan ere finale-rako sailkatu berri da.

Zizurkilen, finalak

Zizurkilgo VI. Pilota Txapelketaren finalak igandean jokatuko dira, 09:30etik aurrera. Txapelketa urriaren 23an hasi ziren jokatzen. Guztira hamar jardunaldi jokatu dira, 62 partida. Benjaminetan, 20 bikotek hartzute parte; alebinetan 17k eta infantiletan nahiz kadeteetan 15ek. Igande honeitan, benjaminen finala Gorostiaga-Muruak eta Meulman-Iparragirrek jokatuko dute. Alebinena: Goikoetxea-Gartzia et Etxeberria-Apezetxeak. Infantiletan, Sein-Aburuza eta Uitz-Oiartzabal ariko dira, eta kadeteetan, Oscoz-Agirre Altuna-Etxeberriaren aurka. Finalen ondoren, herriko emakumeek pala partida jokatuko dute: Osa-Gelbentzu zizurkildarren aurkariak, Hernaniko Alkorta-Gorostegi izango dira.

Amezketa, final-laurdenak

Euskal Herriko Pilotak Elkartearen Arteko Nazio Txapelketa final-laurdenetan sartu da. Horrek esan nahi du, hemendik aurrerako partida guztiak Amezketa Larrunari pilotalekuaren jokatuko direla. Asteburu honetan, larunbatean eta igandean, kanporaketak 17:00etan hasiko dira. Elkarteek elkarren artean hiru modalitatetan jokatzen dute, eta bi irabazten dituenak egiten du aurrera. Lau t'erdian, buruz buru kantxa osoan eta binaka ariko dira Amezketa.

SHUYANA

EDERGINTZA



Tolosa&Co
txartelarekin ordaindu
hiru hilabetetan
interesik gabe

Edertasuna eta ongizatea oparitu itzazu

Itzali adimena eta
piztu zentzumenak



Erlaxazio mundua deskubritu ezazu
gogoan izango dituzun masajeekin

Aprobetxatu itzazu gure promozioak kosmetikoetan



Aukeratu gure dendaran oparia eta
jasotzen duenak ez zaitu inoiz ahaztuko

ESTETIKA: Eskolapioetako Lorategiak 3, 1A. • Tel.: 943 675 489

KOSMETIKA: Korreo kalea 1. • Tel.: 943 671 468

TOLOSA

www.shuyana.com

Bereziko lantaldeak
festa zoriontsuak opa dízkizue

Berezi

44-64
neurriak

**NEURRI
BEREZIAK**
Gazte eta emakumeentzako
moda

www.berezitallasespeciales.net



Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965

Berezitallasespeciales



Kirol Agenda

@Tolosaldeakirol 

ASTEASUN, EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Harri handien txapelketa jokatuko da Asteasun, hilaren 18an, igandean.

18:00etan hasiko da, eta bost harri-jasotzaile egongo dira lehian: Jokin Eizmendi, Goenatxo III.a, Aimar Irigoien, Imanol Iñarramendi eta Aimar Galarraga.

200, 175, 150 eta 125 kiloko harriekin ariko dira lanean. ATARIA



OSTIRALA ABENDUAK 16

ALEGIA

ELORRI PILOTALEKUA

20:30. Gomazko paleta. Intxurre eta Su Berrikoen bi partida. Jubenilen mailan.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA PILOTALEKUA

19:00. Esku pilota. VI. Antton Pebeten Oroiñezko Pilota Txapelketa. Final-laurdenak.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

19:30. Eskupilota. Zazpilturri eta Intxurreko alebinen arteko partida.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

19:30. Esku pilota. Tolosako infantil eta kadeteen partidak. Buruz buruko hiru partida.

LARUNBATA ABENDUAK 17

ADUNA

16:00. Eskupilota. Txulobikoen partida, infantiletan, banaka.

ALEGIA

ELORRI FUTBOL ZELAIA

11:00. Futbola. Jubenilen lehen mailako partida, Intxurre vs. Idiazabal.

15:30. Futbola. Erregional mailako partida, Intxurre vs. Urola.

AMASA-VILLABONA

BEARZANA PILOTALEKUA

12:00. Eskupilota. Behar Zana eta Zazpi

Iturriko pilotarien arteko partida, nagusien mailan.

19:00. Esku pilota. VI. Antton Pebeten Oroiñezko Pilota Txapelketa. Final-laurdenak.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

17:00. Esku pilota. Euskal Herriko Pilota Elkarteen Nazio Mailako Txapelketa. Final-laurdenak.

IRURA

AMETSA TRINKETA

13:00. Esku pilota. Kadeteen mailako zortzi partida, banaka.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

10:00. Gomazko paleta. Emakume Pilotari Herrikoien Txapelketa Azkarra.

17:15. Gomazko paleta. Emakumea Pilotari Txapelketaren finalak.

IGANDEA ABENDUAK 18

ALEGIA

ELORRI PILOTALEKUA

11:00. Esku pilota. Intxurrekoen hiru partida, alebin, infantil eta nagusien mailakoak.

AMEZKETA

LARRUNARRI PILOTALEKUA

17:00. Esku pilota. Euskal Herriko Pilota Elkarteen Nazio Mailako Txapelketa. Final-laurdenak.

ASTEASU

USARRABI PILOTALEKUA

18:00. Harri-jasotzaileak. Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa.

TALDE NAGUSIAK

Aurrera de Vitoria

LAUBURU IBARRA

Areto futbola. Abenduak 17, larunbata, 18:30ean Gasteizen, Bigarren B Mailako partida.

Alcobendas

TOLOSA CF ESKUBALOIA

Eskubaloia. Abenduaren 17a, larunbata, 18:00etan, Alcobendasen. Zilarrezko mailako partida.

TOLOSA CF

Durango

Futbola. Abenduaren 18an, igandea, 16:30ean, Tolosako Berazubin, Hirugarren Mailako partida.

La Gallofa

TAKE REDLINE MEKANIKA

Saskibaloia. Abenduak 17, larunbata, 20:30ean, Santanderen. EBA Liga.

13

IRURA

AMETSA TRINKETA

09:30. Esku pilota. Nagusien mailako hiru partida. Azken bietan Behar Zanako pilotariak ariko dira.

TOLOSA

BEOTIBAR PILOTALEKUA

16:00. Esku pilota. Tolosakoen lau partida. Kadete, jubenil eta nagusien mailakoak.

ZIZURKIL

INTXAUR PILOTALEKUA

09:30. Esku pilota. Zizurkilgo VI. Pilota Txapelketa. Finalak.



BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA

ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 17 • 10:00

Infantilen 1. maila

BILLABONA FKE - VASCONIA CD 'A'

Larunbata, 17 • 12:00

Kadeteen Ohorezko maila

BILLABONA FKE - TOLOSA CF

Larunbata, 17 • 15:45

Erregional 1. maila

BILLABONA FKE - LAZKAO KE

Larunbata, 17 • 18:00

Jubenilen Ohorezko maila

BILLABONA FKE - OSTADAR SKT

Saharako begiradak argazkitan

14

Maiatzak 20 elkartea sei urte luze daramatza lanean. Saharako haur taldeak ekartzen dituzte Euskal Herrira udako oporraldia igarotzera. Ekimena aurrera ateratzeko gizarte osoaren konpromisoa eta laguntza behar dira. Oraingo honetan irudi bitartez dator elkartasuna.

Jon Miranda

Tumana, Buzeid Mohamed, Gleila, Saleh, Samira, Chej, Benda, Sidi, Dagna, Buzeid Hamada, Amma, Ahmadua eta Hanan. Hamahiru neska-mutil hauek uztaila eta abuztua pasa zituzten Amasako apaizetxeen Maiatzak 20 elkartearren ekimenez.

Elkartea egiten duen lana gizarteko proiektua berria da *amasahara*, sahararrek bizi duten egoera partekatzeko balioko duena eta ekimen solidario hau sostengatzeko finantzazio iturri izango dena. Elixabet Eizagirre, Maiatzak 20 taldeko kideak aipatu duenez, «Tindufetik gertu dauzen Aljeriako saharar iheslarien erre-fuxiatu kanpalekutik haur talde bat ekarri ahal izatea jende askoren laguntzari esker gauzatzen da eta oraingo honetan Nora Urbizu, Ander Ortiz de Murua eta Beatriz Medrano

billabonatarrek euren ekarpena egin nahi izan dute. Elkartea gauzatzen duen *Oporrak bakean* programara bideratuko da jasotako diru guztia».

1975ean Espainiako estatuak Men-debaldeko Sahara Maroko eta Mauritaniaren esku utzi ondoren, okupaziotik ihesi Aljeriako basamortura egin behar izan zuten milaka saharrerek. «Lehenengo uda hartan ehunka haur hil ziren beroagatik eta pentsatu zuten zerbaitegina egin beharra zegoela saharar gizartarekin ez akabatzeko», esan du Eizagirrek. Hurrengo urtean bertan, Aljeriako gobernuak haur

rrek Donostia aterpetxe batean hilabetez hartu zuten ostatu.

Pixkanaka gorputzen joan zen egitasmoa *Oporrak bakean* izena hartu arte: «Ez dakigu zehatz esaten noiz, baina geroz eta jende gehiagoren kolaborazioarekin, aterpetxeetatik harrera familietara egin zen salto eta hilabete bat pasatzen bi hilabetera zabaldu zen oporraldia». Uztaila eta abuztua pasatzen dituzte gure artean, erre-fuxiatu kanpalekuetatik etortzen diren 10 eta 12 urte arteko gaztetxoek.

Arnasa hartzeko beta

Duela 37 urte, *Oporrak bakean* proiektua abiatu zenetik kalkulatzen dute %40 jaitsi dela haurren hiltze indizea erre-fuxiatu gunean. Lehenengo bete-beharrak haurrak berotik babestea da. Eizagirrek nabarmendu duenez, udan 60 gradutik gorako temperatura egon daitekeelako desertuan. «Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte jasangaitza da beroa eta ez da inor kaleru ateratzen ezin delako arnasarik

Gipuzkoara duela 30 urte iritsi zen lehen taldea. 50 umek Donostia aterpetxe batean hilabetez hartu zuten ostatu

talde bat hartu zuen eta 1979an, lehen aldiz, Saharako 100 haur bidali zituzten Espainiako estatura. Gipuzkoara, 1986an iritsi zen lehen taldea. 50 hau-


hartu. Helduek ulertzen dute, baino nola eutsi 10 urte inguruko ume batia haima barruan beroak jan ez dezaz?». Eguzki plakak iritsi direnetik, klimatizazio sistemak dauzkate kanpalekuetan, baina bateriak agortzen zaizkie- nean berriz ere aurre egin behar izaten diete bero sapari.

Baliabide faltan jarri dute arreta Maiatzak 20 elkarteko kideek. «%100 alfabetatuta dagoen herria da, unibertsitatera joaten dira sahararrak eta mediku oso onak dauzkate, baina gero baliabideak falta zaizkie. Hemen, oftalmologo edo otorrino batek momentu batean konpondu dezakeen gauza, errefuxiatu kanpalekuetan ezinezkoa da». Horregatik, Saharako haurrek Euskal Herrian pasatzen dituzten bi hilabeteak osasun azterketak egiteko baliatzen dituzte. «Betaurrekoak behar dituenari jarri egiten zaizkio edo ebakuntza txikiak egiten dira, gehienetan basamortuko klimarekin zerikusia duten gaitzak artatzen ditugu hemen», azpimarratu du Eizagirrek.

Gure artean uda pasatzen duten haurrek, gainera, enbaxadore lana egiten dute. Mendebaldeko Saharak bizi duen egoera politikoaren lekukotasuna ematen dute dauden tokian daudela. «Tristea da pentsatzea 40 urte pasa direla soluziorik gabe. Lurralde bat daukate eta handik ihes egin behar izan dute. Maiz esaten dute sahararrek munduak ahaztuta dauzkala eta egia da: Mendebaldeko Saharen historia interes guztien kontra doan historia da».

Geroz eta gehiago, hobeto

Baina baikor hitz egiten du Eizagirrek: «Seguru gaude Dakhlako hondartze- tan emango diogula bukaera *amasa-hara* proiektuari». Bainan bien bitarte-



NORA URBIZU

an jarraituko du jendearen elkartasunak beharrezko izaten.

Maiatzak 20 elkartean biltzen diren lagunak ere ez dira hutsetik abiatu eta aurrez beste taldeek egindako lanari segida eman diote. «Arrasate eta Aretxabaletan baziren Saharen aldeko bi talde eta haien harreman berezia zuten Martir Cherif izeneko zentroarekin. Rabouni administrazio gunean dago kokatuta zentroa eta gerraren biktimak eta minez zaurituta dagoen jendea zaintzen dute bertan. Normalean leku horietara joaten da bizitzera familia osoa eta umeek bazterketa bikoitz jasaten dute: errefuxiatu kanpaleku batean daude eta gainera gune berezi batean. Ume horiek laguntze-ko, *Oporrak bakean* programan sartu eta 2008an lehen aldiz etorri ziren 15 neska-mutil Euskal Herrira Debagoie-

nako elkarteei esker. Uda hura eta hurrengoa Lasturren pasa zituzten».

Bi urteetan bertara laguntza emate- ra gerturatutako jendeak osatu zuen gerora Maiatzak 20 elkartea. Tartean zen Elixabet Eizagirre: «Giro polita sumatu genuen eta iruditu zitzagun udan basamortutik ahalik eta haur gehien ateratzeko guk ere egin gene- zakeela zerbait. Hurrengo urtean, 2010ean lehenengo haur taldea etorri zen gurera». Brinkolan eman zuten lehen uda eta baita ere hurrengoa. Hu- rrengoa bi urteak Ibarra pasatzen eta azkeneko hirurak Amasako apai- zetzean.

Bakea eta askatasuna desio dituzte Saharak herriarentzat eta nahiago lu- kete hurrengo urtean *Oporrak bakean* programa berritu beharko ez balitz. «Zoritzarrez errepikatu beharko ba-

**Herri ekimena dago Maiatzak
20 elkartearren oinarrian.
Egonaldia finantzatzeko
laguntza eskatzen dute**

**Haurren hegazkin bidaiaz
gain, elikadura, joan-etorriak
eta beste hainbat gastu
ordaindu behar izaten dira**

16

litz, ikusiko dugu Amasan egin ahal izango genukeen edo ez. Etxebizitza berriak eraiki behar dituzte han inguruau eta ez dakigu udan zein fasetan egongo diren lanak. Haurren segurtasuna bermatu behar dugu beste ezer baino gehiago».

Aterpetxearen martxa, auzolanean

Errefuxiatu kanpalekuetatik etorrako begirale batek, Euskal Herri bizi diren Saharako beste hiruk eta Eizagirrek berak Amasako apaizetxean pasa zuten aurtengo uda. «Gau eta egun egoten gara haur taldearekin, baina zorionez laguntzaile asko gerturatzent zaizkigu». Izan ere, familia handi bat bezala funtzionatzen du aterpetxeak: «Egunean zehar sortzen diren ardurak denen artean banatzen ditugu: oheak egin, ontziak garbitu, bazkaria prestatu, garbiketa egin...».

Haur hauek sortzen duten elkartsun olatura jende asko batzen da udako bi hilabete horietan: «Pazientzia handia erakusten dute Amasan bertako bizilagunek eta asko laguntzen digute. Bestela, Gipuzkoako beste toki askotatik etortzen zaigu jendea, batek garbigailuak jartzen laguntzen digu, besteak arropa zabaltzen. Badira umeak hartu eta igerilekura eramatzen dituztenak edo Donostiari paseo bat ematera joaten direnak. Umeekin egunero gauden



begiraleoi arnasa hartzen laguntzen digute boluntario horiek».

Izan ere, herri ekimena dago Maiatzak 20 elkartearren oinarrian. Saharako haurren egonaldia finantzatzeko laguntza eskatzen dute udaletan eta «batzuk positiboki erantzuten dute eta beste batzuk berriz ez». Elkartasu-

na da, beraz, ekimena aurrera ateratzeko erabiltzen duten tresna: «Umeak etorri aurretik bilketa berezi bat egiten dugu. Behar izango dituzten janari eta higiene produktuen zerrenda luze bat egiten dugu eta erantzuna oso positiboa izaten da. Urtean zehar ere, etortzen diren umeentzako arropa behar ote dugun galdetzen digute eta haien iristerako guztia prestatzen dute».

Laguntza guztia da beharrezkoa, bi hilabetez, dozena bat haurren hegazkin bidaiaz gain, elikadura, joan-etorriak eta beste hainbat gastu ere ordaindu behar izaten baitira. Urtean zehar elkarrekin asko dira ekimenak antolatu eta bildutako dirua aterpetxera bideratzen dutenak. Maiatzak 20 elkartea ere bigarren eskuko merkatua eta elkartasun merkatua antolatzen ditu urtero eta duela gutxi, Tempora taldearen kontzertua prestatu zuen Villabonan. Jasotako diru guztia Saharako umeek bi hilabete gure artean pasa ditzaten erabili zuten.

Ahalegin kolektibo horretara batu da orain *amasahara* proiektua, gure artean izan ditugun haur horiek beraiek protagonistatzat hartuta. Haien begiradek erakusten dute askatasunean bizitzeko gogoa duen herri baten parte direla eta denboran iraun nahi dutela. Inoiz ezagutu ez duten lurralte batera itzuliko dira, berandu baino lehen.

Hitz jolasako proiektu berria izendatzeko

**Proiektua izendatzeko auke-
ratu dute *amasahara* izena.
Jolas bezala proposatu dute
eta Saharako herriari egiten
dio erreferentzia. Horrekin
batera, azken hiru urteetan
hango haurrak hartu dituen
Amasa herriaren zati bat ere
ageri da izenean.**

**Baina hasierako «ama» ho-
rretan jarri nahi izan du arre-
ta Eizagirrek: «Guk hemen
haur horiekin disfrutatu de-
zagun, ama sahararrek agur
esan behar izaten diente beren
seme-alabeik, askotan jakin
gabe nora doazen. Gugan jar-
zen duten konfiantza esker-
tzeko modua bat da *amasahara*-
hara egitasmoa».**



JON MIRANDA

«KONFIANTZA MARKO BATEAN ATERATAKO ARGAZKIAK DIRA DENAK»

NORA URBIZU

ARGAZKIEN EGILEA

Saharako enbaxadore dira 'Oporrak bakean' programan parte hartzen duten umeak eta haien begiraden atzean ezkutatzzen dena azalerazi nahi izan du billabonatarrak.

Erabat lan militantea izan da, musu-truk egindakoa. Azken hiru urteetan gertutik Amasako apaiz etxearen ezagutu dituen haurren erretretuak ateratitu Nora Urbizuk eta horrekin *amaharraga* proiektua osatu.

Noiz eta non du sorburua proiektu honek?

2015eko udan eta Amasan. Tea hartzen ari ginela sortutako hizketaldi luze horietako baten emaitza da. Eli eta bion artean sortu zen sensibilizazio kanpaina bat egiteko gogoa. Aurretik, haurrak hemen zeudela aprobeta txatu genuen argazkiak ateratzeko eta ordutik hona zein forma eman pentsatzten aritu gara. Lehen urratsa, erakusketa izango da.

Aurrez argazkilari bezala aritua al zinen?

Kamera digitalak ez zeuden garaian

ikastaro bat egin nuen Donostiarra Aragazkilari Elkartearen eta errebelatzen ere ikasi nuen. Ordutik agenda kontuengatik behin ere ez dut beste argazki ikastarorik egin eta badut digitalean ikasteko gogoa. Ni ez naiz argazkilari profesionala eta erakusketa bisitatzen duenak hori ikusiko du. Lan honek beste balore batzuk ditu, horrekin egote hori, harreman hori islatzen dute. *Kuriosa* naiz, berez, eta argazki kamara erabilzean baino, begirada ezberdin bat jartzean dago nire ekarpena.

Zein irizpide erabili duzue argazkiak aukeratzeko?

Zaila egin zait oso. Taldean egin du-gun lana izan da. Behin argazkiak aterata beste ikuspegia bat jartzen lagunduko zidan norbaiten laguntza behar nuela argi nuen. Aurretik ere elkarre-

kin lanean aritutakoak gara eta beraz, berehala jo nuen Beatriz Medranoren-gana. Oso ondo ulertzten dugu elkar eta emaitza polita izan da.

Noiz ateratako argazkiak dira era-kusketan bilduko dituzuenak?

Guztiak egun bakar batean ateratakoak dira, aurtengo uda bukaeran. Handik gutxira etxera bueltatzekoak ziren haurrak eta argazkietan despedidaren gertutasunak sortzen dituen sentimendu kontrajarriak nabari dira. Baina, oro har, umeak oso erosoa egon ziren kamera aurrean, lasaitasun ikaragarria dute horretarako.

Zer nolako harremana izan duzu Saharako haurrekin?

Argazkiak ikusita, nabari da konfiantza marko batean ateratakoak direla. Aurreko urteetan ere egona nintzen haur horietako askorekin eta jolas moduko bat izan da beraientzat.

Batzuk melfa jantzita, besteek tur-bantea daramate. Zergatik?

Aukeran eman nien. Batzuk jantzi zituzten eta besteek ez. Jartzeko prozesua, melfekin nola egiten duten jolas... hori guztia jaso nuen. Ikusi ahal izan nuen, behin melfa edo turbantea jantzia beste indar bat hartzen zutela haurren begiradek, nortasun bat nabari da argazki horietan.

Erakusketarekin hasi eta non bukatuko da proiektua?

Batek daki. Guk Maiatzak 20 elkartearren esku utzi dugu. Jendeak ez dezala pentsatu argazki erakusketa profesional bat denik. Errespetu guztia adierazi nahi diet beren bizibidea hortik ateratzen dutenei. Gure egitasmo hau beste gauza bat da, Saharako herriarekin gertatzen ari dena gizarteratzeko modu bat. Maiatzak 20 elkartearik daraman proiektuarekiko atxikimenduz eta haurrekiko maitasunez nire ekarpena hau izatea erabaki dut. Argazki batzuk liluragarriagoak dira besteak baino eta nik neronek badauzkat nire kuttunak. Erakusketa bisitatzen duenak aukera izango du argazkia etxera eraman eta proiektu duin bat laguntzeko.



Beatriz Medrano, Nora Urbizu eta Elixabet Eizagirre Amasan, Buzed txikiarekin. ALBERTO MEDRANO

18

AMASAHARA: ERAKUSKETA BAINO GEHIAGO

Abenduaren 30ean Amasako kultur etxearen arratsaldeze erakutsiko dute lehen aldiz proiektua eta handik aurrera herriz herri eraman nahi dute Mendebaldeko Sahararen askatasun egarria, umeen begiradatik.

Jon Miranda

Osasuna, emakumea, duintasuna... *amasahara* proiektuarentzat eta orohar, Saharako herriarentzat garrantzitsuak diren kontzeptuak argazki banarekin lotu dituzte prestaturako erakusketa. «Erretratueta ageri diren umeen izenak jartzean pentsatu genuen aurrena, baina iruditu zitzagun haur hauek bezala beste batzuk izan zitezkeela eta guztiak ezaugarritzen dituzten kontzeptuak direla aukeratutakoak».

Udan Amasako apaiztxean egon ziren haurren erretratuak dira, nagusiki, proiektuaren ardatza, baina egitasmoa ez da erakusketara mugatzen Urbizuk azaldu duenez: «Sentsibilizazio kanpaina izatea nahi dugu eta ko-

munikazio egitasmo oso bat prestatu dugu horretarako. Egongo da argazkiez osatutako erakusketa bat, aukeran herriz herri ibiliko dena, baina horrekin batera, poltsan eramateko moduko kuadernotxoak prestatu ditugu, postalak eta orri-markatzekoak».

Hain zuzen, begiraden serie batekin osatu dituzte orri-markatzekoak. Beatriz Medrano diseinu arduradunak azaldu du: «Ume hauen begiratuk oso indartsuak dira. Nik erretratu psikologiko bezala ikusten ditut. Melfak edo turbanteak jantzi edo erantzi, begirada aldatzen zaie, beste identitate bat adierazten dute, indartsuagoa. Kamara aurrean beste era batera paratzent direla esango nuke».

Arreta eman dio Medranori, berezkoak dituzten jantziak soinean jarrita, «neskek estate baterako, nola jarri di-

ren kamara aurrean. Ikusten da beraiengana mendebaldeko kultura eta ohituren arrastoa». Udan Medranok ez zuen hainbesteko harremana izan Saharako haurrekin baina behin argazki guztiak ikusita «samurtasuna» eragiten diotela esan du.

Horregatik aukeratu du letra tipo fina eta simplea. «S hizkian esate baterako & sinboloarekin jolastu nahi izan dugu eta umeen kaligrafia hori gogoratu. Argazkietan ageri diren jolasetako mugimenduak irudikatu nahi izan ditugu», dio Medrano.

Erakusketa ibiltaria

Hogeitik gora argazki bilduko dituen erakusketa izango da proiektuaren abiapuntua. Urbizuren esanetan, «herriaz herri mugitzea nahi genuke eta gurekin harremanetan jartzeko gonbita luzatzten diegu arduradunei». Tamaaina berekoak izango dira argazki guztiak, «ume guztiei garrantzi bera eman nahi genielako».

Erakusketa ikusgai izango diren argazkiak salgai egongo dira. Ikusleak gustuko dituenak aukeratu eta zein tamainatan nahi dituen erabaki ahal izango du, hiru egongo dira aukeran. Jasotako ekarpena Maiatzak 20 elkarterako izango da. Oraindik ez dute lanen prezioa zehaztu.

Argazkiekin batera beste obra bat erakusteko asmoa dute. Ander Ortiz de Murua billabonatarrak prestatu-



19

koa da: «Urbizurekin badut harremana eta berak proposatu zidan proiektuan parte hartzeko. Argazkietako bat aukeratu, aurpegiaren erdia hartu eta begia eta melfa agertzen diren partea aukeratu ditut koadro bat egiteko». Berezia da, ordea, arte lana: «Egur baten gainean eginda dago eta marrazkia *bic* boligrafoekin egindakoa da. Zirriborro teknika erabili dut horretarako, espresioa moldatu ahal izateko». Distantzia batetik begiratuta, argazki baten gisan ikusi daiteke irudia. Ortiz de Muruak ere, Maiatzak 20 elkartearen esku utzi du bere koadroa, nahieran erabili dezan.

Printzipioz, erakusketarekin batera erabiliko dute obra herriko herri eta lehen geltokia, Amasan izango du abenduaren 30ean 17:00etatik aurrera. «Iruditzen zaigu azken hiru urteetan Saharako haurrek hartzituen heariak merezi duela beste inork baino lehenago lana ikustea, proiektua lagundu eta oso ondo portatzen diren bizilagun asko baitaude». Egun horretan, arratsaldez pare bat orduz ikusi ahal izango da erakusketa.

Han izango dira Urbizu, Medrano, Ortiz de Murua eta Maiatzak 20 elkarteko kideak. Eta ordutik aurrera, *amasahara* proiektuarekin bat egin nahi duenak harremana egin dezake arduradunekin *maiatzak20sahara@gmail.com* helbidean, edo 696 014 786 telefonoan.



Erakusketan ikusgai izango den argazkietako bat. NORA URBIZU

“

Euskal taldeak ez ditugu behar adina mimatu eta baloratzen

ENRIKO RUBIÑOS ETA DJ BULL
MUSIKARIA ETA DJ-A

Vendetta taldeko bateria jotzailea eta musika irakaslea bata, eta eskualdeko nahiz Tolosaldetik kanpoko DJ ezagunenetarikoa bestea; bientzat ere, musika euren bizitzako zutabe garrantzitsua da

”

Iñigo Terradillos

Vendetta taldearekin kontzertuetan eta entseguetan ez dagoenean, musika irakasten egoten da Enriko Rubiños. DJ Bull, berriz, Vendettaren nahiz beste euskal taldeen musikarekin, herriz herri nahiz aretoz areto, fes-

ta giroa jartzen aditua da. Vendettaren *Bother* lan berriaren aurkezpenaren aitzakian elkartu ditugu aspaldiko lagunak diskoaz, musikaz eta bestelako-ez solasteko.

Nolakoa da disko berria?

Enriko Rubiños: Aldaketa egon da disko honetan ere. Diskotik diskora

beti nahi izaten dugu harago joan. Gure berezko ska estiloa nahastu nahi izaten dugu, eta oraingo honetan musika elektronikoarekin uztartu dugu. Soinu elektronikoagoa egin dugu.

Disko guztietañ atzematen dira, beraz, aldaketak.

E.R.: Ez zaigu gustatzen bi disko ber-



L TERRADILLOS

din edo antzeko egitea. Benetan berria, berritzalea izatea nahi dugu, jendeak entzuten duenean sorpresaz hartzeko. 10 abesti ditu diskoka. Badaude bi reggae, nahiko lasaiak direnak. Gainerako guztia ska da. Ez da lehenengo eta bigarren diskotan egiten genuen ska punk-a, klasikoagoa da, eta elektronikarekin pixka bat nahastua.

DJ Bull: Orain arte entzundakoa asko gustatu zait. Izugarrizko indarra du.

Aurrerapen kantua ere indartsu, trilogiaren zati den bideo eta guzti.

E.R.: Kapsula bat dabil bueltaka, eta horren inguruan kokatzen da istorioa. Oso landutakoa da.

Bull: Irudiarekin asko saltzen da gaur egun, sare sozialen bidez-eta, beraz, alderdi hori landu beharra dago.

Non grabatu duzue?

E.R.: Gehien Bilbo inguruan. Esne fa-

brika zahar batean baimenik gabe jarri ginen grabatzen, eta halako batean udaltzainak azaldu ziren. *Bother the police* kantua, eta polizia agertu! Baina, ez ziguten inolako arazorik jarri grabatzen jarraitzeko.

Eta, orain aurkeztea egokitzen da.

E.R.: 13 balas laneko biraren bigarren zatia amaitu berri dugu. Sekulako bira izan da. Birarekin batera, gainera, videoklipak grabatu, discoa prestatu... gogorra izan da, eta orain lanaren aurkezpenaren fasean gaude. Ez da gure lanetik gehien gustatzen zaidana, baina gustura egiten dut.

Zuzenekoak noiz hasiko irrikaz, ezta?

E.R.: Azken batean, Vendetta zuzeneko taldea da. Diskoak egiten ditugu, videoklipak ere bai, baina guri gehien gustatzen zaiguna zuzenekoak egitea

da. Urtarrila eta otsaila atsedenerako utzi dugu. Martxoan hasiko gara entseguetik, martxo bukaeran birari ekiteko.

Nolako taldea da Vendetta bull?

Bull: Izugarrizko taldea da. Zentzu guztietan. Taldekoen arteko sinbiosia, elkarren arteko harreman ona, asko nabari da zuzenekoetan, *rollo* oso ona dute euren artean, eta oso musikari onak dira.

Zuen bion artean ere harreman ona duzue.

E.R.: Bai, aspalditik ezagutzen dugu elkar eta ederki moldatzan gara.

2008. urtean Vendettarekin lehen discoa, eta ordutik ia topera.

E.R.: Eboluzioa izan da. Geroz eta gehiagora egin dugu.

Izan ere taldearen abesti batzuk ia jende guztiak ezagutzen ditu.

Bull: Musika estilo gustagarria egiten dute, ska, reggae. Niri asko gustatzen zait mestizaje hori. Metal zalea naiz. Tronboia, tronpeta hor entzutea atsegin dut, bateria ahaztu gabe [barreak].

Parrandarako oso musika egokia da.

Bull: Ska oso erritmo bizia da. Mugitzeko aukera ematen du. Jai baterako apropsoa.

Diskorako abestien aukeraketa egitean asmatzen al duzue edo espero ez zenuten kantuek izaten dute arrakasta?

22

E.R.: Nik uste dut nahiko begi ona daukagula. Disko guzietan geratzen dira kantuak kanpoan. Honetan hamabost bat bagenituen konposatuta, baina, ez zaigu gustatzen diskoa betetza betetzea hutsagatik. Hamar abestik pasa dute azken galbahea. Taldekin artean egiten dugu aukeraketa, batzuk oso garbi izaten dute zein abesti sartu, eztabaidatxoa izaten dugu, eta ados jartzen gara, hori bai, batzuetan atzera egiten jakin behar da.

Bereziki maite duzun abestirik?

E.R.: *Leña al fuego* adibidez ikaragarri gustatzen zait. Kantu horrek, daukan bideokliparekin eta duen *rollo* onarekin, bide asko ireki zizkigun. Diskoa baino hilabete lehenago edo argitaratu zen, eta harrera oso ona izan zuen. Horrek poz handia ematen du.

Bull: Bai. Abesti horrek hasieran indar handia du *Bother the police*-n antzera. Azken honetan, baina, erritmo hori abesti osoan mantentzen da, eta *Leña al fuego*-k gorabeherak ditu. Asko era biltzen dituzue gorabehera horiek, eta ondo etortzen da, beheraldi baten ostean indartsuago hasteko.

E.R.: Zuzenekoetan ere oso ondo etortzen dira horrelakoak. Kontzertuetan jendea dantzan edukitzea nahi baduzu, ezin duzu denbora osoan topera eduki.

«Bullek sekulako begia du, badaki une bakoitzean zein kantak funtzionatuko duen, eta hori ez da batere erraza»

ENRIKO RUBIÑOS

VENDETTA TALDEKO BATERIA JOTZAILEA

Kontzertuekin martxoan hasiko zarete.

Gogorra izango da, bai. Ez dakit nola bukatuko dudan. Astelehenetik asteazkenera eskolak ematen ditut musika eskolan. Ostegunetik igandera dauzkagu entseguak aurreikusita. Martxo berezia izango da. Argazki bat utzi beharko dut etxeen [Barreak].

Bull: Edo panpinen bat.

E.R.: Martxoko azken asteburuan hasiko gara jotzen, eta ez gara geratuko.

Bull: Zuek martxoan hasi eta nik orduan oporrak.

E.R.: Tenerifera?

Bull: Kubara.

E.R.: Eskuko ordenagailua eraman behar al dek, pintxatzeko?

Bull: Bai, nire eskuko ordenagailua, dultzaina.

Kubakoak ere animatuko ditu Bulek.

E.R.: Ziur baietz. Hori gerra emango duena Kuban! [Barreak]

Atsedenaldia martxoan, beraz Bulek. Udan, behintzat, ezin, ezta?

E.R.: Ezta neguan ere. Hau ez da geratzen. Bere egutegia ikusten dudanean, ia egun guztiak beteak ditudala ikussten dut, eta horrela hilabetero. Ikaragarria da!

Bull: Hauen errua da. Izugarrizko produktu onak egiten dituzte, ondorioz material ona dut. Gainera, euskal taldeek egiten duten lana nabarmendu nahi dut. Daukaten laguntza txikia kontuan hartuta, bai tabernetan, bai eta irratietan ere. Bultzada bat merezi dute, sekulako lana egiten baitute. Nik uste dut ez ditugula gehiegiz mima tzten.

Egia esan, azken urteetan bereziki nabari dela hori esango nuke.





dugula eta jendeari gustatzen zaiola. Gero, egia da, Vendettak komunikabideetan duen babeska edo, esaterako Gudadantza bizkaitar ska taldeak dueña bestelakoa dela. Talde ona da, oraintsu hasi dira, baina ez dute bultzada hori.

Bull: Azkanean jakin behar duzu une eta leku egokia topatzen. Ez da bat bestea baino hobea dela. Nire esperientzia eta ikuspegitik, ni baino hobek diren 20.000 Dj egongo dira...

E.R.: Ez pentsa! [Barreak]

Bull: Bainan, nik egiten dudana maite dut eta jendeak ere badirudi maite duela egiten dudana.

Zergatik kontratatzen dute Bull?

E.R.: Bullek sekulako begia du, badaki une bakoitzean zein kantak funtzionatuko duen, eta hori ez da batere erraza. Badaki halako abesti jartzen badu hori gertatuko dela, eta bestea jarrita, berriz, beste hori gertatuko dela. Berbenetan jotzen genuanean, Drindotseko taldeakide Jon Urdangarin eta Triku Agirrezabalak bazekiten plaza bat nola altxa edo nola baretu amaitzera. Ederki zekiten hori, eta Bullek ere begi hori dauka.

Bull. Ados, baina etxeratzerako begi

«Vendetta izugarritzko taldea da, zentzu guztietan, rollooso ona dute euren artean, eta hori asko nabari da zuzenekoetan»

DJ BULL

DJ-A

hori ez daukat, jaia barruraino sartuta daukat eta gorantza etortzen naiz, eta gorantza joanez gero, ez dago geldituko nauenik! [Barreak]

Zuek zuen musikarekin girorik tristeena ere alaituko zenukete.

E.R.: Irribarretxo bat atera behintzat.

Bull: Guk, behintzat, ondo pasako dugu.

Tolosaldeko musikariak eta musika taldeak nola ikusten dituzue?

E.R.: Nahiko deskonektatuta nabil. Azken kontzertua Belarminak taldearena izan zen. Asko gustatu zitzaidan, oso ondo dago. Bainan daukan denbora libre gutxirekin ezinezkoa zait, maletak jarriko lizkidakete atean.

Bull: Oztopo taldea, esaterako.

E.R.: Bai, Oztopo. Gainera, bertako Eguzkiri bateria eskolak ematen dizkiot. Konbenio del Metal, Gargantas desgarradas, Euphoric edo lehengo Agoraphobia, Bi Bala, Glaukom... **Bull:** Humus ere bai.

Zerrenda luzea egin dezakegu gu-rean.

E.R.: Betidanik izan da horrela Tolosaldea.

Bull: Bide Ertzean, ostegunean [atzo, izan zen aurkezpena] Bilboko Kafe Antzokian aurkeztuko dute lan berria.

E.R.: Eta, gero Bull, ostegunero bezala.

Hemen ere egon zen kafe antzoki bat jartzeko ideia.

E.R.: Egia da.

Bull: Bainan, ez luke hiriburu batekoak duen dimentsioa izango.

E.R.: Ostegunean, pintxo potera irtenen zara, eta gero kafe antzokia jartzen dizue...

Herri askotan izaten zarete zuek.

Bada herriren batean ikusi eta gu-rean faltan botatzen duzu enik?

E.R.: Ba, ez dakit. Nik ordutegia zabalduko nuke, baina, beste lekuetan ere gertatzen zait ordutegiaren arazoa.

Bull: Kafe antzokia edo areto baten falta bai Tolosaldean. Bonberenearen bigarren aretoa, berria, oso ondo dago, baina gutxi erabiltzen da. Kalitate handia du, eta lekua apropoza da. Lehen egunetik asko gustatu zitzaidan, tamaina egokia du. Ni areto ugariitan egon naiz, eta hori oso ondo dago. Handiagoak ez betetzeko arriskua izan dezake. Areto batentzat, hutsa egotea ez da batere itxura ona.

E.R.: Ez da ona ez aretoarentzat, ez eta taula gainean dagoenarentzat.

Hori gertatu al zaizue, jende gutxi izatea zuen emanaldietan?

E.R.: Behin edo behin bai. Buruan dudan azkena, duela lau urte Suitzako bira batean. Astearte bat zen, eta noski, nor etorriko da astearte batean?

Bull: Eskerrak askotan gertatzen ez den, baina gertatu izan zait. Aurten, Arbizun gertatutakoa dut buruan. Igandea zen, eta pentsatzeko zen larunbataren ostean ez zela jende gehiegi egongo.

Eta, noski, zure lanarekin aurrera jarraitu behar duzu.

Bull: Nik, behintzat, nire ordutegia betetzen dut.

Tira, hemen utzi beharko dugu.

E.R.: Jendeari gogoratu, nahi duenak eskuragarri duela azken diskoa webgunetik doan deskargatzeko, edota aplikazioaren bitartez ere bai.

Bull: Vendetta gehiago eta reggaeton gutxiago!

E.R.: Bidaltzen badidate bideo bat Bull Habanan reggaetona dantzatzen! [Barreak]

Bull: Kuban Vendetta entzuten badiat bidaliko diat bideoa!

E.R.: Sekulako inbidia ematen didak! [Barreak]

GOXOTEGIA
GOURMET OKINDEGIA
GOXOTEGIA KAFETEGIA MUSEOA

www.hogeitahamahiru.com
Bazurka industrialdea, 1. zbkia
20260 Alegia • Tel. 943 698 604

Irribarre
943 69 86 31

Pressto
943 69 8617

Stylo berri
943 69 86 18

Bazurka industrialdea • ALEGIA

30
-EKO % DESKONTUA
EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN
eta askoz gehiago...

www.multiopticaspipuzkoa.com

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA
Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugariak. Ezingo da beste eskauntza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Tolosako Babarruna

GOZA ITZAZU

www.tolosakbabarruna.eus

Tel.: 943 65 02 53

OwnCloud


Google Drive eta Dropbox bezalako tresnak daudenean, erraza da antzeko software apalagoak ezkutuan geratzea, baina OwnCloud datuak biltegiratzeko irtenbide egokia dela uste dugu hainbat arrazoiengatik, baina batez ere software librean interesa dutenentzat apropozoa delako.

OwnCloud datu biltegiratzeko software bat da hainbat aplikazio dituenak bere barnean, eta gure zerbitzari propia sortu dezakegu, kodea librea baita. Beraz, enpresa txiki zein ertainetan zerbitzari hori hainbat lekutatik atzigarri egon daiteke: oso erosoa eta era-bilgarria.

Owncloud zerbitzaria oso konfiguragarria eta ulergarria da, baina artikulu honetan ez gara zentratuko zerbitzaria sortzeko prozesuan, bere erabilieran baizik, eta sareko owncloud zerbitzari publiko batzuk nola erabili eta konfiguratu daitezkeen esango dugu norberak ingurune hau probatu ahal izateko eta ondoren gauza lantxuagoetara joateko, egokia dela ikus-ten badu.

Beraz, ez dugu programa deskargatu kola, baizik eta hornitzaire bat bilatu beharko dugu owncloud.org orrian (orri ofiziala) eta deskargen atalera jango gara.

Zerbitzaria jaitsi beharrean, Provider bat bilatuko dugu:




Openmailbox posta zerbitzua oso interesgarria da, eta owncloud du bere

barnean. Bertan kontu bat izateak ahalbidetzen du ownclouden erre-minta guztiak izatea eta 1GB-ko edukiera gorde ahal izatea bere zerbitzarian. Hala ere, azken aldian zaila da kontu bat irekitzea bertan, errore mezuak agertzen dira alta ematerakoan. Horregatik Wyffy beste plataforman kontu bat sortzea da aukera une hone-tan. 1GB-ko edukiera ere erabil daiteke. 1GB ez da asko beste zerbitzu batzuekin alderatuz gero, baina muga horrek ere bere abantailak ditu, beti ere ez delako edukiera handiegirik sinkronizatu behar.

Wyffy kontu bat sortzea oso erraza da, kontu hori posta kontu batekin erlazionatu behar da eta konfirmazio mezu bat jaso ondoren kontua mar-txan dago.




Guztiz euskaraz jarri daiteke, software librean oinarritua izatearen bes-te abantailatoko bat. Eguneraketa eta eboluzioa beti ere azkarragoa delarik. Hauxe ingurunearren itxura:



Hala ere, komenigarria da sarean erabili beharrean bere bezero progra-ma instalatu eta gure ordenagailuan karpeta bat izatea hodeian dagoen karpetarekin sinkronizaturik. Bezero programak telefono mugikorretarako eta SE anitzetarako daude: Windows, Linux edo Mac.

Sync your data

Connect to your ownCloud with our clients for your



Sistema eragileko beste edozein karpeta bezalakoa izango den karpeta sinkronizatu bat lor dezakegu progra-ma honekin eta horrela sareko karpeta modu errazean kudeatu.



Konfigurazioa egiterakoan cloud.wyffy.com zerbitzaria zehaztu eta gure kontuko erabiltzaile eta pa-sahitzak sartu ondoren sortuko du karpeta sinkronizatu hori. Eta egune-ratuta dagoenean hodeitxo berdez ageriko zaigu, lanean ari denean aldiz urdinez:



Iturriak:

- <http://alexgabi.blogspot.com.es/2014/04/openmailboxorg-zerbitzuak-orain.html>
- <http://www.muylinux.com/2014/01/15/owncloud>

Agenda

OSTIRALA ABENDUAK 16

ADUNA

KBARETA

22:00. Soka-zirkuikuskizuna izango da. Memphis Mafia taldea, musika eta malabarrik nahastuko ditu Fuman musicoloco-k eta Izarretan dantzan emanaldia eta saioa borobiltzeko Amaia kantaria. Sarreran, zapi euroko laguntza eskatuko dute, Asvinenean.

ANOETA

FILMA

15:00. *Fatima* filma, jatorrizko bertsioan eta azpitituluak euskaraz dituela, Mikelasagasti auditoriumean.

IPUIN KONTAKETA

18:30. Maite Frankoren ipuin kontaketa HH2tik aurrerako haurrentzat, liburutegian.

ALEGIA

GAZTETXEAREN 29. URTEURRENA

19:00. Tolosatik Tokyora bizikletaz. Lander Egia, gaztetxean.

22:00. Ping Pong txapelketa, gaztetxean.

ALTZO

XX. OLENTZERO TAN JAKINMINEZ

18:00. Musika emanaldia. Loatzo musika eskolako ikasleen eskutik, elizan.

19:30. *Konektatuta bai, baina ez nolanahi!* solasaldia, Mikel Etxarri Ordiziako Jakintza ikastolako irakaslearekin.

BERASTEGI

ELKARTASUN AZOKA

16:30-19:00. Elkartasun Azoka antolatu dute: arropa, jostailuak, liburuak, altzariak,... egindo dira, aparkaleku azpiko lokalaren. Prezio sinbolikoa jarriko zaie, eta biltzen den dirua Etiopiako Wukro herrira bidalko da.

TOLOSA

ENERGIA TAILERRA

11:00. Tolosaldea Piztu ekimenaren barruan izango da fakturazio elektronikoari buruzko tailerra, kultur etxean.

BUALA SUKALDARIA

18:00. Tolosa&Co-ren eskutik, Buala sukaldaria inoiz kozinatzen den postre goxoarenaren bila. Beharrezkoak diren trikimailu guztialik jarriko ditu martxan, Trianguloan.

BATZAR IREKIA, 485 ETXE HUTS

18:00. Tolosako Etxebitzitza Asanblada jarri

dute martxan 485 etxe hutsen egoerari erantzuteko. Horretarako batzar irekia egingo dute, Trianguloan.

IPUIN TXOKOA

18:00-20:00. Ipuin txokoa, gurasoak ere ipuin kontaril! 3-6 urte bitartekoentzat eta euren gurasoei zuzendua da, Haur liburutegian. Kontalaria: Miriam Mendoza.

HI HAIZ HI! JIALDIA

20:00. Hi Haiz Hi! Jialdia antolatzen dute Tolosako Orixe eta Laskoraineko 1 eta 2 Batxilergoko ikasleek. Lehiaketaren xedea berdintasuna bermatzea, lehiaketaz gozatzea eta nola ez, ondo pasatzea dira. Topic zentroan izango da.

MUSIKA

22:30. Arimaz Kamera Orkestrak, Santa Klara elizan, Eguberrieta kontzertu berezia eskainiko du.

MUSIKA

22:30. Kokein eta Highlights taldeak igoko dira Bonbereneako oholtzara.

ZIZURKIL

BIKETRIALEKO ERAKUSTALDIA

18:00. Irene Caminos eta Gorka Susperregiren eskutik, biketriaileko erakustaldia, Joxe Arregi plazan.

LARUNBATA ABENDUAK 17

AMASA-VILLABONA

MUS TXAPELKETA

16:00. Mus Txapelket jokatuko da. Bikoteko 30 euro ordaindu beharko da, eta izena emateko epea 15:30ean irekiko dute.

ALTZO

XX. OLENTZERO TAN JAKINMINEZ

16:30. *Oleñtzero eta bere lagunak.* Kontalaria eta musikaria. Zuzeneko musika, mitologjaren inguruko abestiak eta jai giroa (dantzatzeko jardunak). Irudien laguntza pantaila batean eta joko batzuk, udaletxeko ganbaran.

TALO JATEA

20:00. Talo jatea egingo dute Elorri elkartean: taloa, hirugiharra, txorizoa, gazta eta gaztainak.

ALEGIA

GAZTETXEAREN 29. URTEURRENA

19:00. *Dinamika*, Anoetako Talde Feministaren eskutik, gaztetxean.

ASTEASU

NEKANE LIBRE EGUNA

12:00. *Nekane Txapartegiren egoera*, hitzaldia Joseba Txapartegiren eskutik, udaletxeko ikus-entzunezko gelan. Eta pintxo beganoak eta Erein talde akustikoa ere izango dira.

16:00. *Emakumea, immigrantea eta presoa*, hitzaldia Katia Reimbergen eskutik, udaletxeko ikus-entzunezko gelan.

17:30. *Emakumeak eta kartzela: eredu patriarkala azterga!*, mahai inguruoa. Oihana Etxebarrieta eta Elena Beloki Resak eskainia, udaletxeko ikus-entzunezko gelan.

19:30. Poteo musikatua.

Ondoren. Manifestazioa.

Egun osoan zehar elkartasun postuak egongo dira pilotalekuak.

BERASTEGI

ELKARTASUN AZOKA

11:30-13:00. Elkartasun Azoka izango da, aparkaleku azpiko lokalaren. Prezio sinbolikoa jarriko zaie materialei, eta biltzen den dirua Etiopiako Wukro herrirako da.

BIDANIA-GOIATZ

GILTZARRIA GOIATZEN

18:00. Pala eta esku pilotu partidatik

Ondoren. Afari-merienda eta gaztaina jatea. (Ogitartekoak norberak berea eta edaria bertan egongo da).

Bukatzeko. Euskal kantak abestuko dira. Oharra: Sinatzeko aukera egongo da.

ELDUAIN

ENTSEGUA

17:00. Abenduaren 24ean etxez etxe eta baserriz baserri kantuan eskean ateratzeko entseguak egingo dute, kultur etxean.

IBARRA

KALERA KALERA!

13:00. Ekitaldia, plazako aterpean.

14:00. Elkartasun bazkaria, aterpean.

17:00. Argazki herrikoia.

Preso eta iheslari deportatuak kalera! lelopean.

TOLOSA

XIX. GABONETAKO AZOKA

BEREZIA

10:00-14:00. Ohiko azokaz gain, aukera zabala. Iku egitaraua 5. orrialdean.

KALEJIRA

11:00. Bonberenea Txaranga kalejiran aterako da, Tolosako kaleetan barrena.

14:30. Bazkaria.

ENERGIA AZOKA

10:00-14:00. Tolosaldea Piztuekimenaren barruan izango da azoka.

EXTREMADURAKO AZOKA

10:00-14:00. Extremadurako feria ospatuko da, bertako produktuekin, La Jara elkartea antolatuta, Trianguloan.

ABEGIETA CARITASI LAGUNTZA

10:00-14:00. Hirukide ikastetxeko

Eguberrietaiko kanpainaren barruan, Abegi eta Caritasentzako produktu iraunkorrak biltzen ariak sailak eta tolosarrek ere lagun dezakete: Maxi Eroskin, Eroskin, EKOn eta BMN ariko dira produktuak jasotzen.

IXILDUEN OIHARTZUNAK

1936-2016

11:00. Andoaingo banda errepublikanoa, goizean zehar herriko kaleetatik.

#10 MILA JOAN-ETORRIAN

17:00. Irantz Lekue artistak bideratutako ekimena da. Artea, hausnarketa eta desirak batuko ditu. Hausnarketak jaso eta horiei itzulpen artistikoa emango die, Zerkausian.

MUSIKA

20:00. Baobas Will Destroy Your Planet eta Lauroba taldeen kontzertuak, Tolosa&Co-ren eskutik, Trianguloan.

MUSIKA

20:15. Hodeiertz abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du, Santa Klara elizan.

ZIZURKIL

HAMABIORDUZ KIROLEAN

10:00. Haurrentzako kirol eta jokoak Intxaurre frontolan eta, ondoren, hamalketakoa eta opari banaketa.

16:30. Choper, balance bike eta pedalekin ibilten diren karts-ak probatzeko aukera Intxaurre frontoian.

18:30. Halterofiliako Eguberrietaiko torneoa Intxaurre pilotalekuaren. Denok Danenako bi taldeak ariko dira. Umeei halterofilan aritzeko aukera eskainiko zaie. Hurbildu eta probatu!

22:00. Haurren gau krosa.

22:00. Zizurkilgo XX. Gau krosa.

IGANDEA ABENDUAK 18

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

12:15. Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzak Gabonetako emanaldia eskainiko dute, elizan.

MAGOA

17:00. Magiarene Kutxa kuskizuna izango da

Gurea antzokian, Marseleta Sunmagoaren eskuutik.

ALEGIA

GAZTAINA ERREAK

17:30. Gaztaina errereak izango dira herritarentzat, plazan.

BERASTEGI

ELKARTASUN AZOKA

11:30-13:00. Elkartasun Azoka izango da, aparkaleku azpiko lokalean. Prezio sinbolikoa jarriko zaie materialei, eta biltzen den dirua Etiopiako Wukro herrirako da.

BIDANIA-GOIATZ

GILTZARRIA BIDANIAN

12:00. Herriko dantzari eta trikitilarien emanaldiak izango dira.

ONDOREN. Herritarron argazki erraldoia. Oharra: Sinatzeko aukera egongo da.

ELDUAIN

SINADURA BILKETA

12:00. Hamaliketako eta argazki herrikoia.

12:00-14:00. Sinatzeko aukera izango da, plazan bertan, 2017ko martxoaren 19ko galdeketarako.

TOLOSA

IBILBIDE GIDATUA

11:30. Gipuzkoako Natur jardunaldien barruan, ibilbide gidatua izango da Elosegi parkera, Beotibar pilotalekutik abiatuta.

ZIZURKIL

PILOTA TXAPELKETA

09:30. Zizurkilgo VI. Pilota Txapelketa finalak, Intxaurre frontoian.

SEGIDAN. Zizurkilgo emakumeak Hernanikoen kontra palan desafioa.

ASTELEHENEA ABENDUAK 19

ALEGIA

MUSIKA

18:30. Loatzo Musika Eskolako ikasleek Eguberrietaiko kontzertua eskainiko dute.

TOLOSA

ENERGIA TAILERRA

11:00. Tolosaldea Piztu ekimenaren barruan izango da tailerra, eguneko zentroan.

ODOLEMATEA

18:00-20:30. Hileroko odol ateratzea izango

da, kultur etxeen. Odola ezin denez erosí, odola ematera joateko deia herritarrei.

IRAKURKETA KLUBA

18:00-20:30. Zimurrak liburua, Paco Rocarena. Dinamizatzalea, Joseba Laratxe izango da, udal liburutegian.

ZIZURKIL

LIBURUAREN ASTEA

18:00-20:00. Macarena Sanchez idazle zizurkildarra bere eleberri errromantikoa sinatzen ariko da Plazida Otaño liburutegian.

EGUBERRIETAKO KONTZERTUA

18:30. Loatzo Musika Eskolaren kontzertua, Arantzazuko Amaren elizan.

ZINEMA

EL CIUDADANO ILUSTRE

Larunbata (22:00).

Igandea (19:30).

Astelehenea (21:00).

Gurea, Amasa-Villabona.



LAS ESTACIONES

Gipuzkoako Natur jardunaldien barruan, lehenengo tokiko adibide bat jarriko dute: *Uzturreko basoa*. (19:00).

Iñaki Alzpuru, biologoa eta Naturzaindia. *Las estaciones* filma (19:20)

Topic zentroa, Tolosa.



VERANO EN BROOKLYN

Larunbata (19:30)

Jatorrizko bertsioan, gaztelerazk azitituluekin).

Astelehenea (20:30).

Ikuslearen eguna.

Leidor, Tolosa.



IGELAK

Larunbata (22:30).

Gaztelerazk azpitituluekin.

Igandea (19:30 eta 22:00).

Gaztelerazk azpitituluekin.

Leidor, Tolosa.



VAIANA

Igandea (17:00).

Haur zinema.

Leidor, Tolosa.



'Auto' kontzeptua

Asteburua ate joka genuelako edo, nolabaiteko ero haizez, kopetan koloretako gometxa bana hartuta abiatu ginen etxerantz. Txantxetan hasi zen ikerketa sozial moduko bat egitekotan gelditu ginen, ondotik pasatzen zen jendearen erreakzioak aztertu behar genituelarik. Asko barrezka pasa ziren, beste askok harrituta begiratu gintuzten... Bizpahiruk ere galduet ziguten ea zergatik generatzaletan kopetak kolorez josirik. Inork ez zigun galduet ordea soinean jantzita genituen bakero eta oinetakoez. Kasualitatea.

Ez-ohikoa edo berria denarekin asaldatzen gara. Ez-ohikoztatz noski, guretzat ohikoa ez dena hartzen badugu. Adina dela, gustuak direla... Gu bezalakoekin elkartzera jotzen dugu, antzekoa den artalde horrek ikaragarrizko segurtasuna emanen baitigu. Garenaz ziur, gure nortasunak berezi egiten gaituela guztiz siniesta dihardugu. Erreparatzen hasis gero, gure inguruko guztiek ditugu gustuak komunean, janzteko estilo antzekoa, ohitura eta jokabide berdi-

nak... Begi desberdinez ikusten dugu gutaz urrutzen dena.

«Ni horrelakoa naiz, honela pentsatzen dut eta hau izan nahiko nuke». Zein punturaino erabaki dezakegu hau? Jaio aurretik ezarrita izaten ditugu gure kontzeptua osatuko dituzten

oinarriak. Familia eta lauguren pentsaerak, se-xuak, eskolan jasotzen dugunak, publizitateak... Denek dute eragina gure izatea osatzeko garaian. Behin gizartea iritzi kritikoz aztertzeko adinera iristean, egia da, gure auto-kontzeptua auzian jarri eta eraldatzeko aukera izaten dugula, ikasitakoa desikasteko aukera, gi-

zarteak oinarrian dituen soken gainean dantzan gabiltzala konturatzen baikara.

Nik ere aho batez esaten nuen nire pentsaerak gizarteko artalde homogeneo horretatik ihes egiten laguntzen zidala. Ispilura begiratu eta... Bakero eta zapatilak txukun jantzita, kirola egiteko motxila bizkar gainean, ostiraleroko errepikatzen den tertulia kafea hartzeko irrikaz... Ah, eta gometxa parea kopetan.



**ÍÑIGO IRURZUN
SORARRAIN
IKASLEA**

**Txantxetan hasi zen
ikerketa sozial moduko
bat egitekotan gelditu
ginen, ondotik pasatzen
zen jendearen
erreakzioak aztertu
behargenituelarik.
Asko barrezka pasa
ziren, beste askok
harrituta begiratu
gintuzten...**



sariduna

Atarikideentzat **sarrera parea** dugu



**HI HAIZ, HI!
BELDUR BARIK**
emanaldia

• Lurdes Sarasola
(Liztza)

Abenduak 16, ostirala • 20:00etan Tolosako Topic-en




Saria jasotzeko leihatilan bertan



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KOMIKIA NAIARA DELGADO PEREZ



29

As duas Mariás

Hemen, argazkian, nire aldameean ikusten duzuen gizonez pijo honi galdetzen badiozue jakingo duzue azken hilabeteetan Santiago de Compostelan izan naizela. Agian ez dizue aitortuko 150 urte direla jaio zenetik, isil xamarra eta hitz gutxi-koa baita Valle-Inclán hau. Idatzi, ordea, nola idatzi! Lan ederrak haritu zituen tokatu zi-tzaion aldaketa garaia nolabait ulertu behar eta nobelak, antzerkiak eta beste idazten.

36ko gerra hasi au-rettik hil zen Ramon. Pena, zein bes-tela seguru *As duas Mariás*-en istorioa idatziko zukeela. Egia... Wikipedian begiratzeak pereza, ezta? Ba laburpe-na: frankismo beltzaren ankerrak erotu egin zituen bi ahizpa. Gero, gerra ostean gorri eta neskazahar izatearen zaputzari bizkar eman eta dotore asko ibiltzen ziren soineko bizi pikante eta musu margotuz; gaztaroa igarota ere, unibertsitario gazteak limurtzeko as-moz ibiltzen omen ziren pasieran.

Iragan beltzetik eta orain grisetik kanpo, Corelia eta Maruxa koloretsu ibili omen ziren kaleei bizia ematen. Ordainetan orain estatua bat daukate Alamedako parkean, turista guztiak

ateratzen dute eurekin argazkia eta herriaren espekta-kuluaren parte bihurtu dira. Batzuk kexa dira euren istorioa, Valle-Inclánek gorde izan balu aski eza-guna litzatekeena, gero eta ahaztuago dagoelako. Gazteek ez omen dute

kontuan hartzen estatua horren esa-nahi historikoa.

Eta ni momentuan gogoratu naiz gazteek ezagutzen ez dugun euskara jatorraz, ahaztu ditugun iragan borrokez eta «hemen» jendeak sufritu due-naz. Eta segituan pentsatu dut ez ote zaizkigun bizkarra gurea ez den zamaz kargatzen ari; ez ote genukeen Corelia eta Maruxaren antzera iragan beltzetik eta orain grisetik askatu behar kaleak gure-gure kolorez janzteko.



HARITZ AZURMENDI
IRAKURLEA

Frankismo beltzaren ankerrak erotu egin zituen bi ahizpa. Gero, gerra ostean gorri eta neskazahar izatearen zaputzari bizkar eman eta dotore asko ibiltzen ziren soineko bizi pikante eta musu margotuz; gaztaroa igarota ere, unibertsitario gazteak limurtzeko asmoz

EGURALDIA



OSTIRALA

Beste egun batez jarraian, hego haizearen menpe jarraituko dugu. Goiz partean eta eguerdi aldera bitarte, bolada zakarrak izango ditu eta dezenteko traba egingo du. Arratsalde erditik aurrera, ordea, haizea baretzen hasiko



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

da. Goizean zehar hodei asko ikusiko ditugu, eta ezin da baztertu hego-aldetik tantaren bat edo beste sartzea ere. Baina eguerditik aurrera ostarteak zabalgaoak izango dira. Temperatura atseginan: 15-17 gradu.

LARUNBATA

Itxura polita dakar. Goiz partean men-debaldeko haizea ibiliko zaigu, eta arratsaldean ipar-ekialdera egingo du. Arratsalderan bitartean hodeiak eta ostarreak izango dira, ostarteak nagusituz. Temperatura berdin: 15-17 gradu. Arratsalde erditik aurrera zerua garbitu egingo da, eta gau partean dezente hoztuko du. Temperatura, 5-6 gradu.

30

IGANDEA

Ipar-ekialdeko haizearekin jarraituko dugu, eta goietan are haize hotzagoa sartuko du, eta temperaturak behera egingo du: 12-13 gradu. Temperatura freskoa, eta zeroari dagokionez, aitzkia gutxi, erabat oskarbi. Benetan eguraldi oso polita, eta gau partean oskarbi geratuko denez temperatura asko jaitsiko da: 3-4 gradu.

ASTELEHENA

Eguraldi txukunarekin jarraituko dugu, arratsalde erdira bitarte. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta boladaka nahiko bizi joko du. Zeruan hodei gehiago eta ezin da baztertu euri pittin bat botatzea ere.

OSTIRALA
16IGANDEA
18LARUNBATA
17ASTELEHENA
19ZORION
AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, Jaioberriak...

943655695

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

**Argazkia bi egun lehenago
ekarri mesedez**

FARMAZIAK



ABENDUAK 16, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoak. Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

ABENDUAK 17, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoak. Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

ABENDUAK 18, IGANDEA

IBARRA

Egunekoak. Lejeune, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

ABENDUAK 19, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoak. Olarreaga, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 0128.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarraga Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA
IRRATIA

OSTIRALA

09:00. Pasahitzako magazina.

Iker Ibarluzearen eskuikitik eguraldia, solasaldi politikoa. Tolosalde Garatzen, Tolosako azokari eskainitako tartea, eta lehiaketaren atala (deitu 943 698 038ra edo whatsapp mezua bidali 687 410 033ra 10:45etik 10:55era), aste honetako saria ATARIA-ko material sorta.

11:00. Hamalketakoa. Gure eskualdeari begirada: Gaurkoan, Tolosa.

12:00. Entzuteko Jaloak musika saioa.

16:00. Zebraidea.

18:00. Goizeko saioak utzitako onena.

20:00. Kantazgora musika saioa.

Tolosaldeko musikarien proposamenekin osaturiko saioa.

LARUNBATA

10:00. Asteak utzitako onena.

12:00. Hauspo artean. Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.

Ondoren. Trikitia.

14:00. (H)ari naizela.

Imanol Artolak gidatutako bertsosai.

16:00. Entzuteko Jaloak.

18:00. Entzuteko Jaloak.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.

16:00. Entzuteko Jaloak.

17:00. Kantazgora.

Eskualdeko musikarien proposamenak.

18:00. Entzuteko Jaloak.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitzako magazina. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteberruak utzitakoaren errepasoak, Iñaki Zubeldia *Kale Kantoitik*, Angel Cuerdori Korearako bidaiaz egindako elkarritzeta, eta lehiaketaren atala (deitu 943 698 038ra edo whatsapp mezua bidali 687 410 033ra 10:45etik 10:55era). Aste honetako saria, azoka produktuen saskia.

11:00. Hamalketakoa. Gure eskualdeari asteroko begirada: Gaurkoan, Alegialdea.

12:00. Entzuteko Jaloak musika saioa.

16:00. Zebraidea.

18:00. Goizeko saioek utzitako onena.

20:00. Hauspo artean. Ander Malbadik gidatutako trikiti saioa.



Irun
Jose Eguino, 2 · 1 A
943 612 831

Tolosa
Arostegieta, 6 BIS · 1
943 672 999

www.clinicabinai.com

**Zure hortzen osasuna
eskurik onenean**



- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Hortzetako estetika
- ✓ Protesien laborategia
- ✓ PADI-Osakidetza



**1936. urtean estatu kolpearen ondorioz
errepresaliatuak izan ziren
Urola Ferrokarrileko
langileei omenaldia**

Gipuzkoako Foru Aldundia, 36ko estatu kolpearen ondorioz 1936 eta 1937 bitartean errepresaliatuak izan ziren Zumarraga-Zumaia bitarteko Urola Ferrokarrileko langile ohien edo eta senitartekoen bila dabil 2016ko abenduaren 20an egingo zaien gorazarre ekitaldirako. Jarri mesedez harremanetan **943 112 290** telefono zenbakian.

Sustapena Abenduak 9 - Urtarrilak 5

izarrez beteriko gabonak

Tributo a Fito & Fitipaldis

Bualá
Lauroba

Mago Eriz

Dirt, jump-trial

Baobas

Kantu kolore

DJ Josu

Deabru beltzak

Zapatos en el aire

Musika, magia eta espektakuluen izarrek beteko dituzte Tolosako kaleak

ETA GAINERAKO

6.000 € saritan

100€ko 60 erosketa txeke



Tolosa
& Co